

## **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAZ**

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) nahiko gaztea da oraindik, ta agian horregaitik hainbat arazo eta hutsune daukaz.

Asko gara Euskal Herrian Unibertsitatera joatea erabaki dogunok, beraz azken urte honeetan Unibertsitateak izugarriko eskari bat jasan behar izan dau. Beste aldetik, Administrazioak ezin izan dau bete eskari hori behar bezala.

Ikasleak, ilusio haundiagaz heltzen gara Unibertsitatera, baina hasieratik konturatzen gara, ez dala pentsatu genduan bezalakoa.

Lehenengo egunetik, klaseak ez dirala nahiko haundi eta konfortagarri, ikusi daikegu, gainera ahalegin ugari egin behar dozu klasean ezarleku bat aurkitzeko, ta askotan ahaleginak egin arren, ez dozu tokirik lortzen, ta honen ondorioa: «nahigabeko pira» egitera behartzen zaituela da, horrela Fakultateko kafetegia ordu batzuetan, hain beteta egotea, justifikatu daiteke neurri batetan.

«Masifikazioa» da hain zuzen, Unibertsitatearen arazorik printzipaletariko bat.

Ikasturteko hasieraren beste arazo tipiko bat irakasleen falta

izaten da. Batzuetan, ile batzuk igaro ta gero ere, maila askotan irakasleen premia egoten da. Aurten ere, hutsik dagozan irakasle lanpostuak betetzeko deialdia, Urrian argitaratu da, ikasturtea hastera egoanean, beste aldetik hautapen frogak Azaroan zehar dira, beraz kontratazioak bukatzen dabezenarako, gabonak helduko jakuz, eta guzti honen ondorioa, ikasle asko urtarrila arte irakasle barik egongo dirala, izango da.

Nire ustez, eta ikasle bezala, arazo hau ikasle edo irakasleenganako, kontsiderazio eza nabaria da, Administrazio aldetik.

Ez ahal da posible irakasleen hautapen honek ikasturtea bukatu aurretik edo udan zehar egitea? Zergaitik atzeratu egiten dira urtero?

Era berean, atzerapen honek irakaskuntzaren kalitatean ondori larriak daukiezala, kontutan izan behar dogu, hau da, irakasleek euren asignaturetako egitarau osoa emotea nahi izaten dabe, klaseak noiz hasi diran (Urrian edo Urtarrilan) kontutan izan barik, beraz normalki gaiak, izugarritzko abiaduraz emoten dira. Garrantzitsuena egitaraua betetzea da, baina non geratzen da kalitatea?

Azalpen honeekaz ez dot nahi esan irakasleen kolektiboak erru guztia daukanik, Unibertsitatearen barne-erakundeko arduradunek baitira arazo honetan zer esana daukatenak.

Irakaskuntzaren kalitatean, ezezko eragin daukan beste faktore bat, irakaslearen multzo haundi baten laneko egoera larria da.

Aurreko gaia alde batera utziz, ikasleei arduratzen gaituen beste gauza bat, hauxe da: gure ikasketak bukatzerakoan, gure gizarteak daukazan beharri zehar erantzuteko gai garen ala ez, galdetzen dautsagu geure buruari. Laister konturatzen gara, unibertsitatean jasotako ezagupenak ez dirala nahikoak, oso teorikoak dira, ez dabelako kontutan hartzen benetako lan-eskaera.

Honekin esan nahi dodana, zera da, Unibertsitatea eta Enpresak ez dirala elkar lanean aritzen, hau da, batako ekoizten dauana, ez dela ondo egokitzen besteak behar dauanarekin.

Dana dala, azken urte honeetan, mundu bi honen arteko distantzia laburtzen ari dala, dirudi. Enpresek, Unibertsitatearen bidez, gero eta beka, heziketa ikastaro, jardunaldi eta argibide gehiago, eskaintzen ari dira.

Ia hemendik urte batzuetara, unibertsitarien etorkizuna argiagoa dan, hori da gure itzaropena.

*Edurne Mallea, ikasle*